

Gipuzkoa - Ethazi oinarrizko prestakuntza (EOP)

4. Taldea - EUSKARA

Gaur egungo lan-merkatuan mugitu eta moldatzeko espezialitate bakoitzari dagozkion gaitasun espezifikoez gain, pertsonak beste gaitasun hauek ere beharko dituzte: talde lana, jarrera ekintzailea, sormenezko pentsamendua, komunikaziorako trebezia, konpromisoa, elkartasuna... Hortaz, lan-merkatuan arrakasta izateko gure ikasleentzat ezinbesteko gaitasunak dira.

LH Euskadiko irakasleek, orain arte egin duten gisa, paper garrantzitsua dute ibilbide horretan: ikasleentzat eredugarri izan behar dute, orain arte erabilitako prozedurak aldatuz eta egokituz eta ikaskuntza eredu aurreratuenetarantz bideratzen.


Irakasleei aldaketa metodologikoan laguntzeko eta Lanbide Heziketako Ereduari ekiteko gaitasun berriak garatzeko asmoz, oinarrizko prestakuntza hau antolatu dugu.

URRIA						AZAROA					ABENDUA						URTARRILA										
	1	2	3	4	5	6		1	2	3					1		1	2	3	4	5						
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30	31			
													30	31													


SAIO PRESENTZIALA


Kodea: 19_049 EOP


 Ikastaroa: 2019 (urriak 8 – urtarriak 28)


 Iraupena: 70 ordu

6 Saio presentzial: 21 ordu (16:00 - 19:30)
 Esperimentazioa (ikasgelako praktikak, lanak, online jarduerak...): 49 ordu

 Hizkuntza: euskara

 Formakuntza lekua:
 Gipuzkoa: Tknika

-  Ebaluazio irizpideak:
- Formakuntza orduen %90arekin bete behar da.
 - Ikastaro honetan ezarritako konpetentzia garatzea.
 - Ikastaroan modu aktiboan parte hartzea eta jarduera guztiak entregatzea.

-  Baldintzak
- EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeko irakaslea izatea.
 - Izen-ematea 2019/2020 ikasturteko ikastetxe unea kontuan hartuz egingo da. Adibidez: pertsona batek Araban lan egiten badu, inskribatu ahal izango da soilik Araban eskainitako kurtsoetan.



Konpetentziak

- Euskadiko Lanbide Heziketako Ereduaren barruan dauden elementuak identifikatzea.
- Ekintzailatza garatzea Lanbide Heziketaren esparruan.
- Lanbide Heziketako hasierako eszenatokiak eraiki, egokitu eta martxan jartzea.



Metodologia

- Modalitate erdipresentziala.
- Metodologia aktibo-kolaboratiboa.



Edukiak

- Euskadiko Lanbide Heziketako Ereduaren elementuak.
- Eboluzioruntz bideratutako ebaluazioa.
- Metodologia aktibo-kolaboratiboak.
- Birprogramazioa.
- Komunikazioa.
- Sormenezko Pentsamendua.
- Kultura Ekintzailea.



Hautaketa irizpideak

- Izen-emate kopuruak eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ondoko irizpideak jarraituz aukeraketa egingo da:
- Parte-hartzaileen hautaketarako ikastetxe bakoitzaren irizpidea kontutan hartuko da, ikastetxe horrek aldaketa metodologikoaren ezarpena aurrera eramateko duen estrategiaren arabera.
 - Ikaskuntza Koordinatzaile programan parte hartzen duten ikastetxeei lehentasuna emango zaie.
 - LHko ikastetxe publiko eta kontzertatuen arteko oreka mantenduko da.
 - Ikastetxe bereko irakaslegoaren artean izen-emate ordena aintzakotzat hartuko da, betiere Ikastetxe proiektuaren beharrak errespetatuz.